



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko urriaren 6a

106. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, distantzia luzeko nahiz aldirietako trenen ordutegiak murrizteari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, gripearen aurkako txerto-kanpainari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (3. or.).
- Galdera, iruzur fiskalaren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borrokari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, migratzaileei harrera eta akonpainamendua egiteko Karibu Zerbitzuaren helburuei erantzuteko jarduketei buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (5. or.).
- Galdera, arrisku sismikoaren aitzineko babes zibileko plan berezia gaurkotzeari buruzkoa. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Agoizko Gamesa eta Castejongo Trenasa ixteak eragindako egoerei aurre egiteko ezarriko diren aparteko neurriei buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, 2020rako eta 2021erako arau fiskalak bertan behera uzteari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (6. or.).
- Galdera, irakasleen kontratazioa eta mugikortasuna malgutzeari buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Mina Muga proiektuari eta proiektuak sismikotasunaren gainean izan litzakeen ondorioei buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Castejongo Trenes de Navarra SA enpresak aurkeztu duen enplegu erregulazioko espedienteari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (8. or.).
- Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako osasun etxeetan ekipamendu eta langile faltaren arazoa konpontzeko neurriei eta epeei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, pandemiak eskolan duen eragina murrizteko eta osasuna bermatzeko hartutako neurriei buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, pandemian zehar erabakiak hartzeko Osasun Departamentuak erabili dituen irizpide objektiboei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (10. or.).

- Galdera, prostituzio-sistemaren abolizioari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (10. or.).
- Galdera, bidesarien kostua igo izana Nafarroako garraio-enpresei konpentsatzeko neurri fiskalak ezarztearen kostuari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautuko duen Foru Dekretua onesteari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Nazioarteko Prentsa Bulegora bideratutako aurrekontu-partidako diruari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako ikasturtearen hasierari buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, 2020rako lan eskaintza publikoari buruzkoa. María Inmaculada Jurío Macaya andreak egin du (13. or.).
- Galdera, 2020rako nahiz 2021erako administrazioetan gastu-araua eteteari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza egin du (13. or.).
- Galdera, AHTaren nahiz Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen obrak suspertzeko planei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Berreraikuntzarako Europako Funtsaren destinoari buruzkoa. Uxue Barkos Berruezo andreak egin du (14. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordea berritzeko hauteskundeetarako deialdia (15. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, distantzia luzeko nahiz aldirietako trenen ordutegiak murrizteari buruzkoa.*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, distantzia luzeko nahiz aldirietako trenen ordutegiak murrizteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Batzordean ahoz erantzun diezaion:

Lurralde Kohesiorako Departamentuak zer jarduketa egin du gure erkidegoan aldirietako eta distantzia luzeko trenen ordutegiak murriztea ekiditeko?

Iruñean, 2020ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, gripearen aurkako txerto-kanpainari buruzkoa.*PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, gripearen aurkako txerto-kanpainari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Urriaren 5ean hasiko da gripearen aurkako txerto-kanpaina. COVID-19aren pandemiak eragin

duen aparteko osasun-egoera ikusita, behar-beharrezkoa da kanpaina ahal den modurik eraginkorrenean egin dadin.

Kontuan hartuta COVID-19a eta sasoiko gripea aldi berean gertatuko direla, zeintzuk dira Nafarroan gripearen aurkako txerto-kanpainaren ildo nagusiak?

Iruñean, 2020ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Galdera, iruzur fiskalaren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borrokari buruzkoa.*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, iruzur fiskalaren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borrokari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Iruzur fiskalaren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borroka da gure helburu nagusietariko bat. Batez ere, iaz, urte amaieran, Nafarroako

Unibertsitate Publikoak egindako txosten batean jasotako datu eskandalagarriak ezagututa (txosten hori egiteko agindua Nafarroako Gobernuak eman zion aurreko legegintzaldian).

Txosten horretan jasotzen zenaren arabera, 2008tik 2016ra bitarteko epean 5.700 milioi eurokoa izan zen iruzurra. Datu horiek latz-latzak dira, urteko batez bestekoa 640 milioikoa delako.

Gizarteari eginiko iruzur horrek berekin dakarrena da gainontzeko herritarrek gertatu behako ez litzatekeen gainkarga hartu behar dutela bere gain.

Iruzur-poltsa handi hori berreskuratuko balitz diru-sarrera handia jasoko litzateke foru erkidegoaren diru-kutxan, eta hori beti da garrantzitsua, baina are garrantzitsuagoa da une honetan, non koronabirusaren pandemiak diru-bilketa nabarmen jaitea eragin duen.

Gauzak horrela:

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zer neurri edo ekintza abiarazi du edo abiaraziko du –laster– iruzur fiskalaren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borrokarako?

Iruñean, 2020ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Galdera, migratzaileei harrera eta akonpainamendua egiteko Karibu Zerbitzuaren helburuei erantzuteko jarduketei buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera, migratzaileei harrera eta akonpainamendua egiteko Karibu Zerbitzuaren helburuei erantzuteko jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtadok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

- Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak zer jarduketa egin du 2020an zehar migratzaileei harrera eta akonpainamendua egiteko Karibu Zerbitzuaren helburuei erantzuteko?

Iruñean, 2020ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

Galdera, arrisku sismikoaren aitzineko babes zibileko plan berezia gaurkotzeari buruzkoa.

BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztutako galdera, arrisku sismikoaren aitzineko babes zibileko plan berezia gaurkotzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, lehen lehendakariorde eta Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Nafarroan gertatu diren azken mugimendu sismikoen larritasuna ikusita –gehienen epizentroa, Lizoainen izan da–, eta kontuan hartuta 2011koa dela Nafarroako Foru Komunitatean arrisku sismikoaren aitzineko babes zibileko plan berezia,

Nafarroako Gobernuak plana gaurkotu behar du litzatekeela uste al du?

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Blanca Regúlez Álvarez

Galdera, Agoizko Gamesa eta Castejongo Trenasa ixteak eragindako egoerei aurre egiteko ezarriko diren aparteko neurriei buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, Agoizko Gamesa eta Castejongo Trenasa ixteak eragindako egoerei aurre egiteko ezarriko diren aparteko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190, 191 eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Oraintsu Agoizko Gamesaren eta Castejongo Trenasaren plantak itxi direla ikusita, zure Gobernuak aparteko zer neurri ezarriko ditu etorkizunean ustez biderkatuko diren egoera horiei aurre egiteko eta horien aurrean alternatibak eskaintzeko?

Iruñean, 2020ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, 2020rako eta 2021erako arau fiskalak bertan behera uzteari buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 2020rako eta 2021erako arau fiskalak bertan behera uzteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gáratek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Espainiako Gobernuak iragarri du 2020an eta 2021ean bertan behera geratuko direla arau fiskalak administrazio guztietan. Gauzak horrela, iragarki horrek zer eragin izanen du Nafarroako Foru Komunitatean?

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Galdera, irakasleen kontratazioa eta mugikortasuna malgutzeari buruzkoa.

MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztutako galdera, irakasleen kontratazioa eta mugikortasuna malgutzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Maria Roncesvalles Solana Aranak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernu zentrala irakasleen kontratazioa eta mugikortasuna errazteko neurriak sustatzen ari da, eskolaren egungo errealitatera ahal den moldagarrien izanen den irakasle-kidego bat beharko den une kritiko honetan. Zure ustez, malgutze horretan zer eragin izaten ari da Irakaskuntzako funtzio publikorako sarbidea arautzen duen abenduaren 27ko 17/2017 Foru Legea?

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: María Roncesvalles Solana Arana

Galdera, Mina Muga proiektuari eta proiektuak sismikotasunaren gainean izan litzakeen ondorioei buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, Mina Muga proiektuari eta proiektuak sismikotasunaren gainean izan litzakeen ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari

Ainhoa Aznárez Igarzak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak urriaren 8ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Azken asteotan intentsitate ezberdineko mugimendu sismikoak pairatu ditugu. Aldi berean, Mina Muga proiektua sustatzen da, nahiz eta horren gainean zalantza handiak dauden, proiektu horrek sismikotasunaren gainean izan litzakeen ondorioei buruz. Kezka hori bereziki larria da Esako urtegian izan lezakeen eraginagatik, meatzetik oso hurbil baitago.

Bestalde, proiektua sustatzen duen Geoalcali konpainiak ez dauka lehendik inolako esperientziarik meataritzako jardueretan, eta ez du meatzetik sekula ustiatu.

Gobernuaren ustez, dakartzan arrisku sismikoak kontuan hartuta, egokia al da proiektu horrek aurrera egitea?

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Castejongo Trenes de Navarra SA enpresak aurkeztu duen enplegu erregulazioko espedienteari buruzkoa.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Castejongo Trenes de Navarra SA enpresak aurkeztu duen enplegu erregulazioko espedienteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Laura Aznal Sagastik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Castejongo Trenes de Navarra SA enpresak aurkeztutako enplegu erregulazioko espedientea dela-eta, zeinak zuzenean lanik gabe utziko baititu 110 langile, honako hau jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak zer urrats zehatz egin ditu enpresa horrek ixtea eta, ondorioz, lanpostu horiek suntsitzea ekiditeko?

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako osasun etxeetan ekipamendu eta langile faltaren arazoa konpontzeko neurriei eta epeei buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako osasun etxeetan ekipamendu

eta langile faltaren arazoa konpontzeko neurriei eta epeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Osasuneko kontseilari Santos Induráin Orduak orain dela zenbait aste iragarri zuen departamentuak zenbait neurri ezarri nahi zituela Oinarrizko Osasun Laguntzan eguneroko osasun laguntza leheneratzea ahalbidetzeko, COVID-19aren arreta bermatu bidenabar.

Halere, osasun etxeetatik heltzen zaigun informazioaren arabera, oraindik ere ez da ezarri honako ekipo hauek hobetzeko edota indartzeko neurririk: Telelaguntza ezarri da, beharrezkoak diren baliabide teknikoak eduki gabe (lineak saturatu egiten dira, edo aldiro erortzen dira).

- Telelaguntzak jardun asistentzialaren burokratizazioa dakar; halatan, plantillek erabilitako denborak eta ahaleginak ez dira erantzun asistentzialaren eraginkortasunaren mesedetan. 10 kontsultatik 3 soilik dira presentzialak, eta 7, berriz,

telefono bidezkoak, oinarrizko osasun laguntza osorako kalkulatu den batez besteko gisa.

- Laneko protokoloek osasun etxeetako profesionalak (administrariak, erizainak, medikuak, gizarte-langileak) saturatu eta gainkargatzen dituzte.

- Plantillek egin duten gehiegizko ahalegina gorabehera, herritarren artean areagotu egin da asistentziarik ematen ez delako pertzepzioa eta, horrenbestez, herritarren nahigabea, zeinaren ondorioz sortzen baitira gatazkak eta tentsio-egoerak.

- Arreta burokratizatzean, administrazio-langileek lan-karga handiagoari egin behar diote aurre, eta horretarako kualifikatuta ez badaude ere, egin-kizun eta ardura horiek esleitzen zaizkie.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

Osasun Departamentuak zer neurri, eta zer epeetan, ezarriko ditu Oinarrizko Osasun Laguntzako osasun etxeetan ekipamendu eta langile faltaren arazoa konpontzeko?

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, pandemiak eskolan duen eragina murrizteko eta osasuna bermatzeko hartutako neurriei buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkeztutako galdera, pandemiak eskolan duen eragina murrizteko eta osasuna bermatzeko hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

COVID-19ak Nafarroan ikasturtearen hasieran izan duen eragina ikusita, Nafarroako Gobernuak zer neurri hartu du azken bi asteotan pandemiak eskolan duen eragina murrizteko eta ikasleen, familien nahiz irakasleen osasuna bermatzeko?

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, pandemian zehar erabakiak hartzeko Osasun Departamentuak erabili dituen irizpide objektiboei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, pandemian zehar erabakiak hartzeko Osasun Departamentuak erabili dituen irizpide objektiboei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuak zer irizpide objektibo erabili du pandemian zehar erabakiak hartzeko?

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, prostituzio-sistemaren abolizioari buruzkoa.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztutako galdera, prostituzio-sistemaren abolizioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioko Isabel Olave Ballarenak, Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, lehen lehendakariorde eta Lehendakariitzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer urrats egingen du, zer epetan eta zer baliabiderekin, prostituzio-sistema abolitzeari dagokionez aurrerabidea egiteko Nafarroak eta bere Gobernuak eskumenen bat daukaten arloetan?

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Galdera, bidesarien kostua igo izana Nafarroako garraio-enpresei konpentsatzeko neurri fiskalak ezartzearen kostuari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, bidesarien kostua igo izana Nafarroako garraio-enpresei konpentsatzeko neurri fiskalak ezartzearen kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Cirizak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Balioespenik egin al duzue, Nafarroako errepi-deetan bidesariak ezartzeak kostua igo izana Nafarroako garraio-enpresei konpentsatzeko neurri fiskalak ezartzearen kostua kalkulatzeko?

Iruñean, 2020ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautuko duen Foru Dekretua onesteari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautuko duen Foru Dekretua onesteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer egin du Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautuko duen foru dekretu berri bat onesteko, euskararik ez dakiten nafar gehienak ez diskriminatzearen Administrazioan sartzeari begira?

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Nazioarteko Prentsa Bulegora bideratutako aurrekontu-partidako diruari buruzkoa.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztutako galdera, Nazioarteko Prentsa Bulegora bideratutako aurrekontu-partidako diruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak batzordean ahoz erantzun diezaion:

Gobernuak zergatik ez du konponbiderik eskaini Nafarroako Kazetarien Elkarteak Nazioarteko Prentsa Bulegora bideratutako aurrekontu-partida baliatu ahal izan dezan?

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Galdera, Nafarroako ikasturtearen hasierari buruzkoa.

JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako ikasturtearen hasierari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Jorge Aguirre Oviedok, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, 2020ko urriaren 8ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Irailaren 4an hasi zen ikasturtea Nafarroan gure erkidegoko 100.000 ikasle baino gehiagoren-tzat.

Zer balorazio egiten duzu ikasturtearen hasierari buruz, hasi zenetik jada hilabete joan den honetan?

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Jorge Aguirre Oviedo

Galdera, 2020rako lan eskaintza publikoari buruzkoa.

MARÍA INMACULADA JURÍO MACAYA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Inmaculada Jurío Macaya andreak aurkeztutako galdera, 2020rako lan eskaintza publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Inma Jurio Macayak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak urriaren 8ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion.

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du 2020rako onetsi berri den lan eskaintza publikoaz?

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Inmaculada Jurio Macaya

Galdera, 2020rako nahiz 2021erako administrazioetan gastu-araua eteteari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 2020rako nahiz 2021erako administrazioetan gastu-araua eteteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteko eledun Ainhoa Aznárez Igarzak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari zuzenduriko gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, urriaren 8ko Osoko Bilkurarako.

Espainiako Gobernuak administrazio guztietan aurtengo nahiz 2021erako gastu-araua etenen duela iragarri ostean,

Erabaki horrek zer eragin izanen du Nafarroan?

Iruñean, 2020ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, AHTaren nahiz Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen obrak suspertzeko planei buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, AHTaren nahiz Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen obrak suspertzeko planei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak berehalako zer plan du AHTaren nahiz Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen obrak suspertzeko?

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Berreraikuntzarako Europako Funtsaren destinoari buruzkoa.

UXUE BARKOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barkos Berruezo andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Berreraikuntzarako Europako Funtsaren destinoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko eledun Uxue Barkos Berruezo, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun han-

diko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak heldu den urriaren 8ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Urriaren 26an Lehendakarien Konferentzia egingen da, Berreraikuntzarako Europako Funtsaren destinoa aztertzeko. Oraingo honetan, aurrenekoz, bertan egonen da Europako Batzordeko lehendakari Ursula von der Leyen, eta udalek ere parte hartuko dute, iragan asteburuan iragarri zenaren arabera. Aldi berean, Sánchez lehendakariak iragarri zuen lege dekretu bat onetsiko dela Europako funts horiek kudeatzeko oztipoak kentzeko.

Zeintzuk dira Nafarroako lehendakariak konferentzia horretara eramanez dituen proposamenaren eta proiektuen ildo nagusiak?

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordea berritzeko hauteskundeetarako deialdia.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

ELA sindikatuak Nafarroako Parlamentuko hauteskunde sindikalak sustatu ditu, 2020ko urriaren egitekoak, eta behar den aurreabisua egin zaio Nafarroako Foru Komunitateko erregistro-bulego publikoari, bai eta Nafarroako Parlamentuko langileen arloko organo eskudunari ere.

1991ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 33.6 artikuluan ezarritakoarekin bat, bidezko da Nafarroako Parlamentuko Mahaiak hauteskunde-deialdia egitea.

Hori horrela, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordea berritzeko hauteskundeetarako dei egitea. Hauteskunde prozesua erabaki honen eranskinean ezarritako egutegiari jarraituz beteko da.

2. Agintzea erabaki hau eta hauteskundeak sustatzeko idazkia Nafarroako Parlamentuko iragarki-oholean argitara daitezen. Era berean, erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

Eranskina

Hauteskunde prozesuaren egutegia

- Hauteskunde Mahaia eratzea: 2020ko urriaren 21ean

- Behin-behineko hautesle-zerrenda jende aurrean paratzea: 2020ko urriaren 22tik 26ra bitartean

- Erreklamazioak: 2020ko urriaren 27ra arte

- Behin betiko hautesle-zerrenda argitaratzea: 2020ko urriaren 28an

- Hautagaitzak aurkeztea: 2020ko azaroaren 10era arte

- Hautagaitzak aldarrikatzea: 2020ko azaroaren 12ra arte

Bozketa: 2020ko azaroaren 20tik aurrera (Hauteskunde Mahaiak ezarriko du egun zehatza)

